



## Meritokraziaz

**G**izarte zientzietan, eta soziologian bereziki, errepikatzen den gaia da meritokrazia. Modu sinplean-edo azalduta, kontzeptu horrek adierazten du norberaren kokapen soziala bere merituen edo esfortzuaren arabera dela. Hau da, gizarteko botere posizioak pertsonen eginahalen ondorio direla. Ideia horrekin, baina, ez gara deskribapenera mugatzen; izan ere, jendarteko antolaketa meritokratikoa balitz, justua ere izango litzateke aldi berean, kokapen boteretsuenetan leudekeenak horretarako ahalegina egin dutenak izango liratekeelako. Sinesmen edo ideologia kontua da, beraz.

Gizartea meritokratikoa dela sinisten al du baten batek? Inguruari begiratzeari nahikoa ez bada, gaiari buruzko lan gehienek argi adierazten dute jendeak ez duela uste gizarteak meritokratikoak direnik, haien eguneroko esperientziak aurkakoa frogatzen baitute: aginte postuetan egoteko bideak, eta bidezidorrek, esfortzuarekin hartu-eman txikia izaten dute ia beti. Esan gabe doa azterketa akademikoetan ere bazterreko ikuspegiak direla, probokazio ideologiko gisa, gehienetan. Kontzeptuak, hala ere, garrantzitsua izaten jarraitzen du zientzia sozialetan, esan dugu, gizarteari bere osotasunean aplikatuta ez bada, eremu zehatzagoi lotuta, hezkuntzari bereziki.

Hezkuntzaren soziologian asko hitz egiten da meritokraziaren auziari buruz. Paradoxikoki, gizartea bere osotasu-

Jendeak ez du  
uste gizarteak  
meritokratikoak direnik:  
aginte postuetan  
egoteko bideak  
esfortzuarekin  
hartu-eman txikia  
izaten dute ia beti

nean hartuta gertatzen denaren kontra, hezkuntza sistema modu nahiko naturalean eta akritikoan esfortzuarekin eta merituekin lotzen da, oro har. Zer da ba nire ibilbide akademiko, nire esfortzuaren edo alferkeriaren ondorio ez bada? Noski, eskolan pertsona batek izan dezakeen prozesuan ahalegin indibiduala aldagai garrantzitsua da, baina beste hainbat indarrek eta faktorek ere eragiten dute aldi berean, askotan modu ezkutuan bada ere. Beste modu batera esanda, gizarteari buruz aritzerakoan modu argiagoan ikusten dugun bezala, hezkuntzan ere denek ez dute ahalegin bera egin behar emaitza antzekoak erdiesteko.

Hezkuntzaren soziologian eta beste hainbat diziplinan meritokraziaren



**IKER IRAOLA ARRETXE**  
EHU-KO SOZIOLOGIAKO  
IRAKASLEA

eta eskolaren arteko hartu-emanak ikertu duten ehunka, milaka, lanen artean, Paul Willis zientzialari sozialarena aipatuko dut, zeinak *Learning to Labour: How Working Class Kids Get Working Class Jobs* (Lan egiten ikastea: langile klaseko haurrek nola lortzen dituzten langile klaseko lanak) izeneko lan etnografikoan, izenburuan bertan agertzen den afera aztertu baitzuen 1970eko hamarkadan, Erresuma Batuko klase apaleko mutilen eskola batean. Eskolan ere gertatzen den desberdinkeria sozioekonomikoa- ren erreproduzioa azpimarratu zuen egileak, beste hainbat konturekin batera. Ikasleak, euren merituen arabera jakintzari buruzko joko garbi batean parte hartzen baino gehiago, etorkizunean beteko zuten posizio soziala bere egiten ari ziren, egilearen azterketa luzearen arabera.

Egia esanda, hezkuntzaren soziologian desberdinkeria erreproduzioaren ideia errepikatzearen zaleak gara, behar bada bestela gutxitan aipatzen dela iruditzen zaigulako. Eta hala izanik ere, egia da, halaber, hezkuntza sistema berdintasunerako tresna garrantzitsua ere badela. Bi ezaugarriak, erreproduzioa eta eraldaketa, ditu bere baitan aldi berean eskolak. Baina gaurkoan meritokraziaz ari ginenez, azpimarratzekoa da hezkuntza sistema ideologia meritokratikoaren gotorleku ere bilakatu dela azkenaldian, eta ikuspegi hori justua izatetik urrun dagoela. ●